


## airepeko zine zikloa cristina enea parkean
## *ciclo de cine al aire libre en el parque de cristina enea*

### Uztailak 4-11-18 *de Julio*

Zenbat lur behar du gizon batek? 1886an Lev Tolstoik idatzitako ipuin baten izenburua da, non nekazari batek, gero eta lur gehiagoren jabe egitearen irrikaz, guztia galtzen duen. Izenburu honekin, 2014ko uda honetan Cristina Enea Fundaziotik aurkezten den erakusketa proiektuak, idazle errusiarraren alegian present dauden zenbait gairi heldu nahi dio. Mende eta erdi beranduago eztabaida ekologistaren eta berea duen gizakia eta lurraren arteko harreman orekatuago baten bilaketaren erdigunean dirauten gaiak hain zuzen.

Uda sasoi ezinhobea da Cristina Eneako parkean aire zabalean egingo den zikloaz gozatzeko, 4. edizio honek, lurra eta komunarekin dugun harremanaren inguruan, zinetik eraiki diren narratibetara era ludikoan hurbiltzea proposatzen du. Ekimen hau Cristina Enea Fundazioa eta Tabakaleraren arteko lankidetzatik sortzen da.

*¿Cuánta tierra necesita un hombre? es el título de un cuento escrito en 1886 por Lev Tolstoi, en el que un campesino, en su ansia por poseer más tierra, lo pierde todo. Con este título, el proyecto expositivo que desde Fundación Cristina Enea presentamos este verano de 2014, quiere abordar cuestiones presentes en la fábula del escritor ruso. Cuestiones que un siglo y medio más tarde siguen ocupando un lugar central en el debate ecologista, y en su búsqueda de una relación más equilibrada entre los seres humanos y la tierra.*

*El verano es la época ideal para disfrutar de un ciclo que tendrá lugar al aire libre en el parque de Cristina Enea. La idea de esta 4º edición sigue siendo la de promover un acercamiento lúdico a las narrativas que se han construido desde el cine, sobre la idea de la comunidad, la tierra y nuestra relación con ella. Esta iniciativa es fruto de la colaboración entre Fundación Cristina Enea y Tabakalera.*

cristinaenea fundazioa

TABAKALERA

%100 paper birziklatua cyclus Papel 100% reciclado

Uztailak 4 de julio, 22:30




LORD OF THE FLIES (Peter Brook, 1963). 92 min.
Jatorrizko Bertsioa Azpitituloak Gazteleraz / *V.O.S.E*

Bigarren Mundu Gerran, aire-istripu baten ondoren, uharte bakarti batera erortzen da mutiko-talde bat, eta, beren artean pertsona heldurik ez dela, gizarte berri bat eratzeari ekingo diote. William Golding-en eleberrian oinarrituta, Peter Brook zinegileak, Robinsonen gai zaharra berritu eta abentura giroa dakarkigu.

*Durante la Segunda Guerra Mundial un avión con decenas de niños británicos se estrella en una isla desierta. Aislados de toda civilización conocida, los jóvenes tripulantes deberán de sobrevivir por sí mismos. Basada en la novela del Premio Nobel William Golding, el realizador Peter Brook nos ofrece una visión donde la aventura se torna en supervivencia extrema.*

Uztailak 11 de julio, 22:30




DUCK SOUP (Leo McCarey, 1933). 70 min.
Jatorrizko Bertsioa Azpitituloak Gazteleraz / *V.O.S.E*

Europa erdialdeko Freedonia Errepublika Demokratikoaren buru den Rufus T. Firefly liberalak, Sylvaniako diktaduraren mehatxua jasoko du. Chicolini eta Pinky, Sylvaniako bi zelatari ospetsu dira baina hala ere, Firefly txit gorenaren ministroak izatera iritsiko dira.

*La República Democrática de Freedonia, un pequeño país centroeuropeo, a cuyo frente se encuentra el muy liberal señor Rufus T. Firefly, se ve amenazada por la dictadura de Sylvania, país de vieja y reconocida solvencia como agresor. Dos espías de prestigio, Chicolini y Pinky, sirven a Sylvania, lo que no impide que acaben siendo ministros del ahora ya excelentísimo Firefly.*

Uztailak 18 de julio, 22:30




ERNEST ETA CELESTINE (Benjamin Renner, Stéphane Aubier eta Vincent Patar, 2012). 80 min.
Euskaraz bikoiztuta / *Versión doblada al euskara*

Ernest basoan bizi den hartz handi bat da. Neguko lozorro luzetik esnatu denean, goseak amorratzen abiatu da hirira sabela betetzeko zerbaiten bila, eta Celestine sagutxoa topatuko du. Ernestek eta Celestinek elkarren laguntza beharko dute beren bizimodua aldatzeko. Hartzak goian eta saguak behean bizi diren gizarte zorrotz eta zurrunean, bi lagunok hainbat arau puskatu eta inguru osoa hankaz gora jarriko dute beren laguntasunari eusteko.

*En el mundo de los osos, está mal visto hacerse amigo de un roedor. Ernest, un enorme oso acoge en su casa a la pequeña Celestine, una ratita huérfana que ha escapado del mundo subterráneo de los roedores. Pese a sus diferencias, aprenden a respetarse y conocerse. Entre ellos surgirá una gran amistad que desafiará el orden establecido.*